

1999-az geroz *Senpere eta beste herritako kantariak biltzen dira Oxtikenekoak elkarteak antolatzen duen Kantu Zahararren Egunean.*

Bazkal denboran ateratutako kantuak dira gehienak eta bertze andana bat bakarkakoak.

Gure helburua da , kantu horiek diren bezala salbatzea , zabaltzea eta nahi duenak hobetzea.

Gure kantuak zinemendua hor da.

Ondoko belaunaldiak ere goza dezatela guk gozatu dugun bezainbat .

01 Ur Xuri

Ixtilarte

Auger Ibarra-ren ahotik

1

Ur xuri gainean zoin den eder Senpere

Hogoi ehun jendez goiti han bizi gare

Eskualdunak gare oraino halere segur nahi ere

Ta federik gabe, euskararik gabe Senperen deus ez gare

2

Lanoki heldu da Senpererat Urxuri

Diolarik agur Amotze ta Urguri

Oiha, Olhasori eta Hergarairi, plaza guziari

Pasatzean Artzirin, gero Ibarruni azkenik Helbarruni

3

Plekariak ere betidanik badire

Theophile, Santiago, Sein ta Xabatene

Behaztegi erne, Audeten lau seme, Iratzoki berme

Ondotik hortz seme, Etxegarai bame, Borda ta Ottoloine.

4

Senperen izan da bertolari ausarki

Jaun erretor zena, jaun kalonje Zaldubi

Ganix Donamartiri, Matxin bertolari Georges Larretxeberri

Ohore deneri Lou Kaskoin Laurenzi eta bertze aintzi

02-03 Lehengo denboretan

F. Fagoaga Apeztei-ren ahotik 1999

Delpech Saratarra 2001

1

Lehengo denboretan gauaz eta beti

ihizin ibiltzen nintzen uso poltit bati

Azkenean atxeman dut nahi bainan hobeki

Lumarikan ederrena baitzaio erori

2

Supazterrean zoin eder den su-burdinak letoinez

Xarmegarria erran nazazu maite nauzun ala ez

Bailetz ere ezin erran, etxekoen beldurrez

Ezetz are guttiago, zure begien amorez

3

Maiatzean zoin eder den leihotik kanpora

Zeren orduan baita lilien denbora

Bati begiratzen diot maiz eta ardura

Gortiarren egiteko ez nintake mentura

4

Gortiarren egiteko ez izan herabe

Baldin amodiorik baldin baduzu batere

Izanak eta gabeak jendetan baitire

Orain nik ez dut zu bertzerik maite

5

Hau ote da hori ote den jondori juaniren astea

Egunak luze gaua da labur neure penaren haundia

Maiteaganik etxerakoan bidean nuen argia

04-05 Hilargi dela

G. Bergara Txistu-ren ahotik

1

Hilargi dela hilargi, gauak eguna iduri

Ene maite bihotzekoa amak ohera igorri

Iratarria baldin badago hastera noa kantari

2

Ene maitea non zira so egidazu leihora

Hemen bagirade bi lagun jinak zure ikustera

Emazu edatera oro gaiten alegera

3

Ez naiz jeikiren leihora are guttiago bortara

Zoazte aitarengana harekin konpartizera

Haren boza baduzue edatera izanen duzue

4

Aitaren errepostua hona non den maitea

Kaiolan dudan xoria ez da zuentzat hazia

Hobeki eginen duzue bide horiek uztea

06-07 Ihizla eta Ihiztaria

JP Lascano eta JN Bessonart-en ahotik

1

Neskatxa gaztea hogoi urtetan adinez xarmegarria

Zure bihotza gorputz ederrean azkarrak dago jarria

Zein zaren fina hertsia-hertsia zirelarik ezarria

Iduri duzu zeru gainetik aingeru bat etorria

2

Buenos-Airesen pasatu ditut hogoi eta zenbait urte

Ene bihotza ez da mintzatu honarat etorri arte

Goiz ezti batez primaderean nindagonean triste

Izar eder bat ikusi nuen gerotik hura dut maite

3

Zure solasak xuriak dira gaixo donado zaharra

Zure saretan ene biltzeko ez zira aski azkarra

Izanagatik nasai bildua urrea eta zilarra

Zure distirak ez du argitzen ene zeruko izarra

4

Ihiztaria zu omen zira korrikaria lehena

Ez omen duzu naski egiten soineko zapaten mina

Zure saretan ez da sarturen maite duzun urtxo fina

Urtxo tortoila ez da egin donadoen hegazkina

08 Oraingo neska gazteak

Billon "Oilandeko Fifin"

1

Oraingo neska gazteen zortzi bertsu berri

Nahi dituenak ikasi erne egon bedi

Igandetan dire kantatuko

Ostatu guzietan denek aditzeko

2

Oraingo neska gazteek duten fantesia

Krabata baten plazan badituzte biga

Mirailari, mirailari diote begiratzen

buruko papillotak ongi ote (di)jutzten

3

Oraingo neska gazteak oraindik amoros

ederki apaindurik ibiltzen zaizkigu

Perleriak, perleriak hain ditu garmitzen

Ustez eta zenbeit xoro tronpatuko duten

4

Oraingo neska gazteak Bidarte aldera

Begia gaitza dute orun* edatera

orun horrek, orun horrek kalterik egin ez dezan

Ederki dantzaten dira Bidarteko plazan

*4 * orun= fr 'rhum' errona*

behari euskaldunak gaizki moztu duke

fr. "boisson au rhum" .->"orun edaria"

09 San Estebe egunean

Austeiko Gabi Fagoaga-ren ahotik

1

San Estebe egunean lehenbiziko buelta

Aire puskatu dira Bera-ra joan eta

Bati gosta izan zaio hitz horiek erran eta

ikustekoak zirela neskatxa horien planta

Ez zirela mozkortu hutsa edan eta

2

Erran bazuen erran ondoko egunetan

Hor ibiliak dira bakezko lujetan

Antolamendu egin hogoi pezetetan

Neskatxa horiek gero kontent lorietan

"Besta egin behar dinagu horien ohoretan"

3

Ganden udaberriko lehen igandean

Hor ibiliak dire Irungo partean

Handik partitu dira ilunabarrean
Aire puska ederra lagun bizkarrean
Gaua pasatu dute nonbait iratzean

10 Hamalauko gerla

Laurent Elhorga

1
Agorrila hastera hasten naiz kantatzen
Egun luze beteko egunaz oroitzen
Mila bederatzi ehun eta hamalaua baitzen
Gerla izigarria Europan hasi zen
Orduan pixtu sua oraino ez da hiltzen

2
Laster jin zen berria Amerikan barna
Deiadar bat samina frantses hauengana
Ikaran zagoela gure erresuma
Baina lagun gaitzala nola umek ama
Eta haiza heritik etsai gaixtagina

3
Bertze zonbait bezala balnaiz frantses haurra
Eta eskualdun seme Landibarretarra
Ameriketan utzi dut paraia ederra
Irabazten bainuen urre eta zilarra
Fortuna egin orde jina naiz gerlara

4
Ongi besarkaturik arrea maitea
Nigarrez utzi nuen gaixoa bidean
Nik buruan hartua hona gosetia
Egia errateko espantuz betea
Ez zela ez izanen gerla bat luzea

5
Kaseman sartu nintzen gero zonbeit aste
Armaren ongi erabiltzen ikasazten
Gero handik aintzina igorri ixtante
Gerlan ari naizela hamar hilabete
Hainbertze irautea nik ez nuen uste

6
Gerla zer den ez daki ikusi ez duenak
Hemen nola dabilzan gau egun gizonak
Beti lanean ari ezin lo artzainak
Hazi batzu bezala lurpean erainak
Hola artatzen gaitu etsai alemanak

7
Nitaz kanpo badira bi anaia suan
Beterean baitaude ainiz iriskuan
Hiruak bizi gare bai orainokoan
Laguntzaile bat badugu ama bat zeruan
Hura otoizten dugu guk behar orduan

11 Arotz abil bat (Gatua)

P. Mendiboure-en ahotik 1999

1
Arotz abil bat bada plazan Bardoztarra
Ihizin ibiltzeko zakur bat beharra
Adinez ez delaik oraino zaharra
Erbi baten hiltzeko da partikularra

2
Mintzatu izan dute jaun ihiztaria
Jan nahia zutela harek hil erbia
Ase ditu eginik saltsa bat haundia
Auzotik ebatsirik gatu bat eria

3
Toki ederrean da Zikite karrika
Ihiztariak ere han bere fabrika
Gatua han zabilan noizean behinka
Bortan harrapatu du mailu ukaldika

4
Hil eta ezarri du dilindan krakotik
Odola zariola belarri zilotik
Bai eta ere larrutu bortak zerraturik
Nihun ez da hotako gatu burregorik

5
Bazen Frantses Espainol Italianoa
Azken honek baitzuen tiratu burua
Erranez kurritua zuela mundua
Saltsan atxeman gabe holako gustua

6
Gatuaren pisua hameka libera
Laurden bat gehiago ongi pisatzera
Bost lagunek jateko bazuten sobera
Getarioa dena emanik barnera

12 Ikusi nuenean

Tapia

1
Ikusi nuenean maitearen kopeta
Iduritu zitzaidan mununa sukaldoko pareta
Tzimula ta tzi tzimula liberti
Altza mununa tingui tangoli
Sei libera eta bortz otsin
Sasoí ederra ziagon eta hobeko dun etzi

2
Ikusi nuenean maitearen begia
Iduritu zitzaidan mununa landako lilia

3
Ikusi nuenean maitearen sudurra
Iduritu zitzaidan mununa lukainka muturra

4
Ikusi nuenean maitearen titia
Iduritu zitzaidan mununa zahato betea

5
Ikusi nuenean maitearen ipurdia
Iduritu zitzaidan mununa ohoko burdia

6
Ikusi nuenean maitearen mototsa
Iduritu zitzaidan mununa gaztaina mordotsa

13 Urki zelaiko puntan

G. Bergara Xistu-ren ahotik 1999

Urki zelaiko puntan Bautista haundia
Armetz bat eskuetan pikatu berria
Aitortzen ez banakon han bertan egia
Nik ebatsi niola bestako ardia
Hautsitzen ninduela buruaren erdia

14 Hunen bizimodua

Apeztei F. Fagoaga-ren ahotik 1999

1
Hunen bizimodua Senpere herrian
Beti zurrut egiten sagardotegian
Broma eta kantua zelebrequerian
Handik ateratu arte ahal duen guzian

2
Hunen ofizioa zapategilea
Lan fina badauka abilidadea
Baina lanerako da gogorik gabea
Pena hartzekoa da hunen feredadea*

3
Lana egin baino lehen kobratu lehenbizi
Diru horiek hartu eta tabernarat ihesi
Horiek gastatu arte zoinek eberazi
Bizkarra hautsitzea ez al du merezi

4
Gosaltzeko behar ditu sei edo zazpi baso
Zoinek orduan honi lana egin asko
Edan korriente baino pagatzea ahaztu
Hala tabernaria ezin aberastu

*fermedadea= esp..enfermedad=eritasuna

15 Egurra nuen

G. Bergara Xistu-ren ahotik

1
Egurra nuen Tombako errekan
Gosta zitzaidan haren ematea orgetan
Urka ere hautsi nuen errekan
Sokaz loturik ekarri nuen errekan

2
Nere egurra haltza eta haritza zen
Gosta zitzaidan karga lekurat ekartzen

Barnetik ere ainitz triste bainintzen
Andrea penetan ustez oihanean hil nintzen
3

Laguna nuen Lékunberriko Piarres

Haren andrea urrats guzian nigarrez
Nun ote zuen bere maite Piarres

16-17 Neura ofizioa

G. Bergara Txistu M. Urbistondo-k osaturik

Neure ofizioa da beti harrian
Guziek dakitena lanbide txarrean
Errautsa birketan dolorea gerrian
Sakela beti pobre urte ondarrean

18-19 Untzi xuri polit bat

M. Urbistondo-ren ahotik 2008
Jean-Baptiste Lamarons "Eskerra"

Untzi xuri polit bat burdin xurizkoa
Hiru libera eta erdi amak pagatua
Esnea kario da merke ostikoa
Eiha xokoan dago dena mazitua

Kalorin kalorin aitak astoa hilen din
Kalorin kalorin haragla janen din

20 Soldado batek Tunisiatik (1883)

2001 ean grabatua Ibarrungo Inharrian

1

Arbonatik* hunat jinik hemen bagirade ainitz
Haurridetarik orotarik malurusena ni bainiz *
Bertze koplarik emanen niro* ni orain herrian banintz

2

Aita amak nigarretan beren haurrez doloretan
Plazer onik ez daiteke orain denbora huntan
Horiek oro jasan daizke* Jaun onaren ohoretan

3

Adios aita ama anai arrebak bizi zaitezte trankilki
Mutiko gazteak behar du gogora nun beti ibili
Ibiltzen denak badaki pena plazer haien berri

4

Ni sortzeko egunetan gauza frango bazterretan
Arribatu nintzanean munduko portalletan
Miseria arribatu zaldiz zela bridetan

5

Ene maiteari egorri letra batean goraintzi
Bizi dadien trankilki jinen nintzela laburzki
Hura gogoan nagoelarik oren guzietan beti

6

Izan banu eskolarik izkiriartzen molderik
Engoitik izanen nintzen ederki aberasturik
Miseria kitaturik andre eder bat harturik

*bainiz= bait + n(a)iz

*eman niro = eman nezake

*daizke=daitezke

Honi atxikirik Apezteiri-gogorat heldu zaio beste hau jarraikian ematen
baitu

Adin ederrenean

Adin ederrenean hemeretzi urte
Munduko penetan dut hartu behar parte
Urus eta alegera nintzen orain arte
Uste nuen baitkitoz ninduela maite

21 Milaka goraintzi

G. Bergara Txistu-ren ahotik

Errakozu ene partez milaka goraintzi harroki
Zure adiskide Monsieur Barnebi, Sarakoari
Ongi pena dudala segurki
Hura bera baizik ez dudala utzi
Satifatu gabe ederki

Kausa zer den berak badaki
Neskatala gazteekin dela ardura bizi
Libertituz ederki
Oraino ez da aski libertitu

Ez du kitaturen nahi
Haren begiak hain ditu argi izarra iduri
Eta koloreak ehun hostotako arrosa bezain gorri
Neskatala gazteen ilusigarri
Karesatzen ditu ederki
Denboraz balia bedi

22-23 Pepa eta Koakin

J.B. Otxalde 1814-1897

F. Fagoga Apezteiri-ren ahotik 1999

1

Gizona zoin triste den ezkontza gabetan
Lorikan ezin egin beti pentsaketan
Ohetik neskatoari zato hunat Pepa
Hemen egonen gira biak elektetan

2

Pepak ereman dio bere arrapostua
Ez al dituzu bada zangoak hoztuak ?
Heidu naiz berehala itzaltzen dut sua
Ez dut gaitzera utzi nahi holako kausa

3

Pepa zure berriak jakin ditut atzo
Nola egona ziren hogoí egun preso
Bero denean itzala batere ez da gaixto
Handik atera zera haza bezain fresko

4

Hola preso egoteko zer zinuenu sujeta
Establiatik hartu bertzeren paketa
Paket horren hartzeko bazinuenu kopeta
Hori deitzen baitugu ohoineu buketa

5

Kustuma hori utzazu triste malurusa
Bertzerena hartzea batere ez da ontsa
Libertatea da gauza baliosa
Eta garbitasuna arimaren arrosa

6

Behin egin duenak egin diro berritz
Etsala ari zaito bazterretik irriz
Hura beti kontentu tzarkeñian ariz
Hirin onaren plazan pagatzen du zahiz

Jarraikian 3.a "Epera" airearekin, Zuberoko kantutegikoarekin
"Epera"-ko hitzak pareka daitezke "02-Lehengo denboretan"-etakoekin
"Azkenean atxeman du oi baina tristeki"
"Lumarikan ederrena baitzaio erori"

24 Eri naiz bihotzetik

F.Fagoga Apezteiri-ren ahotik 1999

1

Eri naiz bihotzetik zonbait urte huntan
Gauaz eta egunaz erreberietan*
Erremediorikan ez botkarioetan
Nigarrez urtzera noa pena xangrinetan

2

Partitzen baldin bazera maitea mundutik
Ez zare aterako ene bihotzetik
Laster hilen naizela ez daukat dudarik
Bihotza urtzen ari zaut zure xangrinekin

3

Gauza izigarria bihotzeko mina
Eta partikularzki amodio fina
Gorputza ja galdua lanjeran arima
Urnikal zaitez nitaz oi Ama Bijjina

4

Kantu hauk eman ditut neure buruari
Zeren baitut bihotzean ainitz sofrikari
Adios sekulakotz maite nuenari
Gorputza lurrerat eta arima jainkoari

1* erreberietan= fr. en réveries

25 Egun oroz

F.Fagoga Apeztoi-ren ahotik

1
Egun oroz goizetan arratsetan
Beti nago pena doloretan
Ez dezaket edan ez eta ere jan
Ez dakit zer dudan
gaitz haundi bat da ni baitan
Amarratu nau bet-betan
Ni ez ninteke bizi gisa honetan
2
Antxu* gazte bilo hori ederra
Sar zaitte sar korralean barnera
Artaldean badugu oi zure beharra
Torna zaitte torna oi zure sortu lekura
Desiratzen dut nik hura
Zure ondoan ibili nahi ni ardura
3
Artzain ona badautzut ene jauna
Otoi zato otoi enegana
Errebelatua denak egin deraut pena
Oi bilo urdina sorturen dela ordaina
Ez zaitela horrela xangrina

2 * Antxu/antzu ez nahas ahantxu/abantxu (kasik) hemen ardia, umerik ez dezakeena oraindik eman

26 Itxoak

Billon "Oilandeko Filin"

1
Publikatzera noa kantu hauek ijito jende horienak
Oraidanokoak gure artean pasatu izan direnak
Alperrak dira oro lapurrak eskatzaileak gehienak
Okasio eta eskandalioa faltatzen ez zaitotena
2
Ijito jende horien bizia guziz dago zelebrea
Onak dira aurrean eta edo bertzela pobrea
Nekatu gabe bizitzekoa dira horien kostumbrea
Ezen arratsean a(b)usatzen dira gizonak eta andreak
3
Emakumeak kondizioa eskerra bihotz erian
Etxeoandreak karitate on bat jaungoikoaren izenean
Konplimendua luzeak eta esker motzak azkenean
Gauza guziak berenak (di)tuzte inor bistan ez denean
4
Etxe leihortatik igual telleri leihorra dagon tokira
Gutiz gehienak ilun beherako erretiratzan baitira
Entenimenduz egotua naiz ni haikieri begira
Haserretu eta onik ez dute porroskatzen ez badira
5
Beren buru asto eta zakur dabilta guan* etorrian
Emakumea erdi bilotza kasikan larru gorrian
Gizona berriz mozte eta aitzaki haitzurtxar batzu gerrian
Seinale on bat uzten baitute pasatzen diren tokian
6
Beso hoietako oihalak eta oilo ebasten atsoak
Gure artean lapurkerian dabilta mutil gaxtoak
Gizona berriz mendi horietako behorak eta astoak
Gauza errexa senti badute arantzan para eskuak
7
Haragi ustel jateko era dira paregabekoak
Gehienak ere zakurrak dira horiek bezalakoak 19
Izanagatik hogoiguneguz lohipean egona zakua
Egosarian jaten dituzte igelak eta apoak

*guan=joan (gan, gaten, gaki Senpereko euskalkian)

27 Gazte hiltzera doana

Elizanburu

1
Hogoigarren urtera ari naiz hurbiltzen
eta nere oinetan tunba dut ikusten
Ni zertako mundura etorria nintzen ?
Ondikotz ez sortzea neuretzat hobe zen

- 4 -
- 2 -

Saltsan atxeman gabe holako gustua

2

Sekulan zoriona zer den jakin gabe
Ainitz dut lurrean izan atsekabe
Lore sortu orduko histu baten pare
Biziaren uztera gutti naiz herabe

3

Xirripa nola doa menditik behera
Iguzkia denean iduri zilarra
Ni ere hala nola mundutik lasterka
Herioarekin ari naiz borroka

4

Ez ez ez nau izitzen ez ni herioak
Laster ken dezadala bizia jainkoak
Sehaskan galdu ditut neure burasoak
Zer diren ez dut jakin etxeko gozoak

5

Aita ama maitteak zertako lurretik
Zerura joan zinezten ni hemen utzirik ?
Ez dut nik mundu honetan izan sosegurik
Ez baitut ezagutu amaren muxurik

6

Hemezortzi urtetan zorigaitz dorpea
Izar bat maitatu dut parerik gabea
Aingerua zaitkeen zeruko umea
Nere bihotz eritik joan darot bakea

7

Anala bat banuen haurra nintzelarik
Soldadutan zen eta nik ez dut beririk
Aita amekin dela nik ez dut dudarik
Neri begira daude hiruk zerutik

8

Nahiz aingeru ona ez duzun sekulan
Munduan jakin zenbat nik maita zintudan
Ontsa zarenaz geroz Jaunaren oinetan
Ez nazazula ahantz zure otoitzetan

9

Adituz banarama neure oinazeak
Burasoen aldera deitzen nau zortekak
Nork ditu artaturen aita ama maitteak
Heien tunba gainean nik eman loreak

10

Neure gorputz flakoa lurrerat orduko
Nor ote da munduan nitaz oroituko ?
Ene ehortz lekura nor da hurbilduko ?
Lore beririk ez da enetzat sortuko

11

Menditan ur xirripa harrien artean
Auhena eta nigarrez jausten da bidean
Izan nahi bailuke zelai ederrean
Hala neure egunak badoaz lurrean

28 1936-ko gerla

Martin GARIADOR "Chiffonnier"-ren bertsuak

Billon "Oilandeko Filin"-en ahotik

1

Espainiako gerla nahi dut esplikatu
Huna bertso berriak kantuz politika
Zerengatik ari diren gizonak milaka
Jada bi urte huntan bat bertzearen hilka
Jainkoaren lege zuzenaren aurka

2

Bere zuzenaren zen gobernamentua
Lehen nagusi zirenek bozetan gaidua
Deskontuan zelako hango populua
Frente Popularrak zuten bozetan sortua
Kintze egiten duenak hartzen du zakua

3

Sakatzearen ondok jira da erreferera
Frente Popularrak ez zen alferren gostura
Zerendako ez utzi bertze bozetara
Legez ez zezaketek auzirik atera
Deliberatu dute gerla ematera

4

Gauza izigarria mundu huntan gerla
Pobrearen bakantzeko asmatua dena
Aberatsa zokoetan gordeka dabil

Erredoblazten dute bere kapitala
Kintalka fabrikatuz obus eta bala

5

Nun dire emazteak haur eta zaharrak
Pusketan xehatuak badire bakarrak
Espekatu* diren oinaze nigarrak
Egoitza suntsituak, galduak senarrak
Horra Franco-tiarren agintza ederrak

6

Aleman, Italiano, Marrokano beltzak
Burrero* izan dire Espainiarentzat
Horien gobernatzaile Franco odol hotza
Heriotzez suntsitu zontat ume xurtza
Horra nolakoa den fazisten bihotza

7

Mundu guziko fazista denak banda bera
Laster hel egiten dute elgar laguntzera
Gure enganatzeko gezur erratera
Pobrea errestan dago horientzat hobe da
Merke jin dazkioten gauza mahainera

8

Gizon frango bada Travaux Forcés denik
Horiek baino guttiago merezi duenik
Franco behar liteke han sartu lehenik
Segi dezan Hitler-ek eta Mussolini-k
Fandangoen emateko Larro laugarrenik

9

Jainko jaunak emanak hamar manamendu
Bortzgarrena nola den emazue kondu
Gaixtaginak infernua desafiatzen du
Ez luke izan behar nihun barkamendu
Gauza bera behar du hark kondenamendu

10

Konfidantzia bada munduarendako
Zuzentasuna egin duela nahiko
Erresponsable dela jenerala Franco
Espainiako gerlan hil direndako
Sinesten ez duena ez da katoliko

11

Baketiar denari Alemanak gerla
Froga Hitler-ren banda lanjerosa dela
Haren lagun haundia Franco jenerala
Lagundua bai gizon bai materiala
Legeen gainetik doa ixuriz odola

12

Kantu hauen emallea da Arrangoitzeko
Eskola guttirekin kurrizten du frango
Eskolatua banintz kargutan sartzeko
Legeak alda nitzazke pobreen argitzeko
Ez gare kreatuak elgarren hiltzeko

13

Noiz argituren zaio pobreaki bixta
Ikusiko duena zertu den fazista
Mundu enganatzaille falso hipokrita
Tiki-kientzat promesak, haundiak profita
Dugun kanta goraki bira Errepublika

14

Huna azken bertsoa hamalagarrena
Kondu errenda* dadin inoranta dena
Noizbait geldituren da pobreen asesina
Otoi gure buruak ez guhaur kondena
Bozetan hauta gizon pobreen zontat on dena

*5 * espekatu=eskapatu (ihesi)

6 * Borrero esp. Borrego fr. "Bourreau"

14 * errenda fr.rendre kondu errenda dadin fr "qu'il se rende compte"
ohar dadin

29 Amodioa gazteen zoragarria

P. Mendiboure 1999an grabatua

Amodioa egin berria gazteen zoragarria
Hamalau urte konplitu gabe emana nion begia
Geroztik hunat gomendatzen dut zeruko Jainko handia
Nik haren baitan emana nuen konfidantzia guzia

30 Xarmegarria zure berririk

Kantu Kanta Kantore bildumako hitzak

1

Xarmegarria nik zure berririk
Nehondik ez dut aditzen
Zure ganako amodioak
Ardura nau oroitazten
Ni zenbat gisa malurusa naizen
Ez duzua ba kontsideratzen ?
Zutaz alpatzeak aditzeak berak
Bihotza deraut nigarrez urtzen

2

Ala egun tristea izatu zena
Nik zu maitatu zintudana
Geroztik hunat pasatzen ditut
Bihotzean zenbeit pena
Hala ni ote naiz munduan lehena
Amodioak trompatzen nauena ?
Ondokoengatik gehiago sofri niro*
Nitan fini baladi azkena

3

Ote da zeruan aingerurik
Elgar maitatzen dutenik ?
Zure eta nere amodioa baino
Fidelagorikan dutenik ?
Ene penak finituren dira
Ni joanez gero mundutik
Bertze erregretik* ez dut izanen
Xarmegarria zurea baizik

4

Oi ! zer gauza lanjerosa den
Amodioa gazteendako !
Ez ote zazu bihotz gogor hori
Ene aldera trendatuko* ?
Zer bada oral hor uzten nauzu
Hobexago baten hartzeko
Ez ote du bada hark ere izanen
Gaua egunaren ondoko
Eguna gauaren ondoko ?

2 * sofri niro = sofri nezake

3 * erregretik fr regret damurik

4 * trendatuko <- tendratuko ? fr tendre "attendri" goxatu

31 Lili bat maite nuen

1999

1

Nahi n(t)juzke kantatu zonbeit bertso berri
Ene bihotz tendrea zeren baita eri
Pena xangrinek naute gazterik ehortzi
Naizelakoan fidatu amodioari
Bai eta ere solas xarmegarriari

2

Lili bat maite nuen zonbeit urte huntan
Pollitagorik ez zen neure begietan
Zonbeit aldiz harekin nindagoelarik
Beti irri pollit bat haren ezpainetan
Iduritzen zitzauban nintzela zeruetan

3

Lurreko zorionak luzamenik ez du
Huna gerla betan nun den arribatu
Neure lagunekilan nintzanean partitu
Maitea nigarretan nuen besarkatu
Bien pena handia gintuenean kitatu

4

Gerla izigarria zenean akabatu
Frantziatikan urrun nintzen suertatu
Hiru urte osoak han ditut pasatu
Maiteak arte hortan ninduen tronpatu
Halakorik ez nuen sekulan tentsatu

5

Goiz batez nintzanean etxean arribatzen
Neure alegantzia oi zer haundia zen
Baina neure bihotza laster lundu zen
Neure maite pollita ikusi bainuen
Haur tiki-tiki bati bularra ematen

- 5 -

- 11 -

6

Pentsatzea errex da zoin bortitz izan zen
Neure bihotzarentzat horren konprenitzen
Izar paregabea ez nuen pentsatzen
Holako afrunturik nuela izanen
Zure amodioan sinesten bainuen

7

Geroztik hemen nago ardura tristerik
Izar xarmegarria sobera mañaturik
Hori dela medio nigarrez urturik
Zeruko jainko handiak zerura deiturik
Utziren dut mundu hau agian lasterrik

8

Zortzigarren bertso hau gazte lagunerik
Kontseilu bat banuke emateko zueri
Lili guziak dira mintzatzen xarmanki
Bainan ez otoi fida hitz eder horieri
Hori dela medio malurus bainatz ni

P Haltzuet Donamartia

32-33 Apezak eta fraileak

Teresa Ibarra-ren ahotik

Apezak eta fraileak hegala gabeko beleak
Munduaren egainatzaileak
Hoiek dirua dute eta gosez hiltzen pobreak
Horiek andreak gordeak gureak baino hobeak
Horra jaun hoiekien legeak

34 Et libera nos a malo

G. Bergara Txistu-ren ahotik 2009
Marcel Arribilaga-ren bildumako hitzak

1

Et libera nos a malo est nomem domini
Vamos a cantar un canto para divertir
Jan dugunaz geroztik xahalki honetik
Eta edan ardoa juranzonekotik
Chantons mes chers amis, je suis content pardi
Trikan daket bon bi
Eta dezagun kanta kantore berri

2

Vamos a la cama costante Larrogun
Plazer duzue jaunak kopla dezagun
Badezakegu eta konbertsa dezagun
Ez da propiagok guk deusik gal dezagun
Prenez garde garçon vous ne parlez kaskun
Ni tan poco frankun
Ez duk hik konprenitzen zer esan dugun

3

Zer gertatu zaigun Paueko bidean
Jaunak erran nahi (di)(u)it orain presentean
Biño eta Aihertzu biak aire gaitzean
Nihaurk ikusi (di)titzut lehengo hegian
Hamarna luis eskuan jokatzen mementuan
Zoin lehen joan bidean
Aihertzu oinez eta Biño zamari handian

4

Joan ziradenean oren baten bidean
Biforen zamariak uko egin zuen
Aihertzuk aldiz orduan laster egin ezin
Pagozko eskalapuak handixe baitzituen
Arrabots bat egiten zuen Paueko pean batean
Su jaustarazten zuen
Biño gaixoak hamar luis hantxe galdu zituen

5

Gero zitutzun lana Pauera zirenean
Prokuradore juje abokatu heiekin
Biño zuzun triste arrazua baitzin
Aihertzu alegera dirutze frango baitzuen
Aise autenitu zuen tribunal zibilean
Arrazua on baitzuen
Biño gaixoak prozeza han galdu zuen

* luis = fr. Louis , sosa, diru

* zamaria = zaldia

* arrazu = arrazoin (eta ez arazo=problema)

* autenitu = fr. Obtenir, orditsi, lortu

* prozeza = auzia

Grafia modernoagoratu eman ditugu, aditzaik eta
hiztegia "zin" (zuen) "bidin" (bidean)"eskin" (eskuan) ...
Kantatzeko okor zaizkionak aldatetako egin ditzaia berorrek.

35 Apez edo misio

Airea "Tiki tikitik aitak eta amak"

Aita zerukoak egin banindu
apeza edo misio
Gorputz honek ez zuen izanen
Daukadan bezainbat bizio
Eizatikian aparte nabil
Tunantekilan sosio
Gorputz honek zenbat hartuko luke
Ainitz ematen bazalo

36 Iruñeako ferietan

bi airetan

II. .diska

01 Euskararen laudorio

Auger Ibarra

Erdi Jakintsu batek omen du ustea
Euskarak erdaratik duela hastea
Gaixoa iduri dik hola erraiteak
Arranoa dugula pikaren umea

Jakintsun haundi batek aitortzen duena
Euskara mintzaitzen dela ederrena
Inoiz auzokoekin nahasia ez dena
Hortakotz deitzen dugu munduko lehena

02 Alakes eta Txunpaire

P. Borda 2001

Ehun eta bi urtetan
Batek nahi zuen josten ikasi bertzeak berriz ezkondut

Alakes eta Txunpaire
Korrespondantzia Mikelebuak
Jesus Maria Jainkoxe

Hik hobe dun Maria mutzurdin gelditzea
Plazaz plaza hor ibiltzeko atxikan libertatea

Nere andre mutur beltz ezpain haundi hortzik ez
Haragi gordina malte du bainan egosirikan batere ez

03 Xori kalotatik lhes joan dena

(kaiolan nintzenean) Darrupe-Hartuz urruñarra 1879
Billon "Oitandeko Filin"-en ahotik

1

Kaiolan nintzenean, maiz nindagoen triste
Kanpoko lagunetan bainuen sineste
Librotasuna ona zela nuen uste, orai arte
Amets, amets xoroa, hik egin nauk kalte

2

Banuen zertarik jan , bai eta zer edan
Deusen eskasik ez zen enetzat kaiolan
Baina guziengatik nintzen errenkuran banuen lan
Aski zabalik ezin aterik atzeman

3

Neure tratatzailea, fidaturik nitan

Artea idekirik , behin utzi zautan
Nahi nuena egin orduan, ni hautan
Lagunetarat laster, joan nintzen airetan
4

Ni lehen usatua, lo trankil egiten
Huna orai berri bat, zer dudan aditzen
Gauaz ihizi batzuek direla ibiltzen xori biltzen
Aztaparren artean dituztela hiltzen
5

Gauaz beldur bizian, egunaz ikaran
Nun nahi irriskatzen sartzea segadan
Holakorik ez zautan bururat, kaiolan nintzanean
Zoin gaizkiago naizen, hobeki ustean
6

Hegaltoak oraino ditut laburregi
Nik nola ihes egin belax gaixtoari ?
Bertzeak bezain airos, nola naite segi laguneri ?
Zer lana eman dudan ene buruari
7

Ene hegala aski luzatu orduko
Uda akabaturik, negua hasiko
Berriz uda-lehenik ez da etorriko enetako
Izotz elur hormetan, nola naiz biziko ?
8

Gazteak nahi badu egon segurrean
Ez dadiela eror nik egin hutsean
Bainan asmo hoberik harturik buruan, deskantsuan
Egon bedi kaiolan ongi zerratuan

04 Kilo egilearenak

*J.B. Otxalde 1878-ko Sarako euskal bestetako
P.Mendiboure kantari*

1
Amikuzeko Gilen kilo egileak
Etxetik kendu ditu bere langileak, sehi maiteak
Zeren galdu dituen irabazbideak
2

Ez dezake nihon sal kilo ardatza
Nagusitu baitzaio galtzerdi orratza, moko zorrotza
Ez du izertu nahi oraino neskatxak
3

Ele biltzen dabil gaixoa eskuan
Laneko gogorikan ez baitu buruan, affer moduan
Oihal gutti emanez kuxaren xokoan
4

Gazte irule gutti da Euskal Herrian
Bat ez dugu ikusten kiloa gerrian, ate hegian
Oi zer prendak horiek saltzeko ferlian
5

Askotan altxatzen da amatxoren boza
Bainan hilobak ez du hartu nahi ontsa, lanerat lotsa
Arantzarik gabe nahi bailuke arrosa
6

Amak goizean oihu "jeiki hadi haurra
Ez dea aski luze hiretako gaua ?, har zan haitzurra
Itzuli beharra dun baratzeke lurra"
7

Alabak arrapostu ohetik gostura
"Bego bihar artio haitzurtzeko lurra, arte laburra
Joan behar baitut goizik merkatura "
8

"Hori galdatzen dautzut izeba Maria
Laket leku ote da gazteentzat hiria, hain da egia
Harat joateko badut aintz gutizia "
9

Horra nola dabilzan oraino neskatxak
Lur lanetako dira sobera beratzak, oi affer hotzak
Akabo eginen du laster laborantzak
10

Neskatxa gazte dena iburaz da habil
Esposatu berrian jaunarentzat umil, ondoan zarpil
Galtzetako ziloak erdirat ezin bil

05-06 Borta hortan norbait bada

E la ela e la
borta hortan norbait bada

Jaun erretorra (x3) ote da ?
Jaun erretorra baldin bada joan meza ematera
E la e la e la
borta hortan norbait bada
Jaun bikarioa (x3) ote da ?
Jaun bikarioa baldin bada joan otoiitz egitera

E la e la e la
borta hortan norbait bada
Jaun errieta (x3) ote da ?
Jaun errieta baldin bada joan eskola ematera

Goazen etxera (x2) erretira ordu da
Gizon deboxak argi alderat erretiratzen baitira

07 Satorra

Minaberry

1
Posteroaren partetik ez axolatzten hartatik
Zerbait zen bildu barnetik ilargiaren aldetik
Joriak ere lurpetik uzkatzen du bezperatik
2

Zilotik ateraturik iltzetik eskapaturik
Zurtoinak harturik gizonak pozoinaturik
Han zutaz urrikaldurik ehortzi zaitut bizirik
3

Jada estalia lurrez ihesi pentze bazterrez
Lur jabearen beldurrez arte xabal eta maltzurrez
Satorra dut etxe berez moltsa bat egin beharrez
4

Gauaz izanik karraina lur harrotzen du dohaina
Nik uste minik bekaina hartu nahi badu gaina
Sendituren alabaina du odolaren usaina
5

Hilez ordain nahi zuk egin Jada lau bortz umerekin
Ni sator moltsa nerekin barmean erruarekin
Dugu aditzearekin badaukatu asko atsegina
6

Goizik edo ilunzean ibili zure atzean
Lur ona da pentzean satorra desagertzean
Haserre gutitzean zuk andeatu pentzean
7

Gure arteko auzia nik ez dut irabazia
Zuk daukazun malezia erakoan merezia
Zaude satorren bizian hortan akabo guzia

08 Dantza debekatzaleak

Manex Olhagaray-n ahotik

Apezak eta fraileak dantza debekatzaleak
Publikoan ez utzi nahi libertzera gazteak
Aberatsentzat komeni dira plazer dituzten guziak
Aberatsek bai eta nihundikan pobrerik ez
Aberatsek hobeak hilik eta bizirik
Bertze munduan zer berri den ez da jiten letrarik

09-10 Kazeta huntan

*Olaetxe aheztiarra
Taldean*

1

Kaseta huntan pertsu berriak,
izaiten dira noiztenka
Noizean behin eros ditaike,
gure eskualdun kaseta.
Gure patroinak ekarri baitaut
aste huntako sujeta.
Bihotz guziaz goretz dezagun,
Jondoni Joanes Batista

2

Orai duela aste batzuek
bestak gintuen herrian.
Frango luzeak egiten dira
oraiko moda berrian.
Gaua ez dela aski luzea
eberrat sartuz argian.
Hola bederen trankil baigira
mamurik ez den bidean

3

Bi emazteki entzunak ditut
bat bertzeari erraten :
gure gizona atzo goizean
argituz geroz sartu zen !
Bakar bakarra egotua naiz
ene kabalen artatzen.
Goseakere hilen lituzke
nik ez banitu bazkatzen !

4

Bertzeak aldiz arrapostua :
badut ebxean holako !
Neurearekin baldin bazine,
ezbaitzinue hobeko !
Irabaziak ez ditu aski
pipako eta armoko
Lana ene gain eta saritzat
bizkarrean bi panpako !

5

Gizontto horiek har dezatela
kantu hauetan etsenplu
noizean behin behar lutzete
beren ebetan kantatu.
Oroit daitela ez dela behar
bere lagunik zafratu !
Mundu huntako ez baita deusik,
esposa bezain sakratu

Xaramela liburuko hitzak

GEHIGARRI

*Josetelako zelai ederra distiran da izar argi
Arimak oro irabazteko hozura bezain haragi
Pekatorosez arduratzeko erranen da de profundis
Juje haundiak eman dezela denen zerua halabiz*

11 bederatzi urte gerla

Tapia

1

Mila bederatzi ehun eta berrogoi eta bortzgarrenean
Kantu berriak jartzera noa Eskual herriko partean
Miseria eta nigarra dantzän joan den bederatzi urtean
Orain gerla hau fini da eta alegeratu galtean

2

Espalnian hiru eta Frantzia sei nola diren bederatzi
Denbora horietan aurkitu dugu zenbait nigar eta antsi
Gizon batzuek ez direlako burutikan ongi jantzi
Hobe ginuen egin balitu otso tzar batek iretzi

3

Hain gerla eta zikinkeria lau gizon dira gerlako
Hoinbeste amaren seme tristerik bizia labur osteko
Franco bat eta Hitler bestea Mussolini eta Keipo
Horien arima destinatua omen da inferrurako

4

Aleman horiek saiatu dira gizon biltzeko lanean
Kanoi eta obus eta abionekin beti edo gehienean
Behin ere ez dire ibili horiek oso bide zuzenean
Bainan azkenean askatu dira Berlin galdututenean

5

Aleman horiek gaixakerian ibili dira non nahi
Kontrarioa agertzen zaio gaizki hasitzen denari
Mineral horren bada jendea lurperatua ugari
Horiek Gernikan egin zuten egin diote berari

12 Francoren txaparrotea

"Apeztei" F. Fagoaga

Francoren txaparrotea Keiporen bigotea
Horiek eman gaituzte preso ugaria

Franco batto, Hitler bestea, hirugarrena Keipo
Horiek dira destinatua hiruak inferrurako

13 Guillaume emperadore

P. Borda

1

Prusiako emperadore Guillaume alpatua
Urguila banitatez haiz inguratua
Munstro asesinante Guillaume alpatua
Oroit hadi badela zeruan jainkoa

2

Zenbat miliun gizon hik ez duk hundu
Tenplorik ederrenak erre eta suntsitu
Presunik onestenak han desfloratu
Luze edo laburki beharko duk pagatu

3

Oroit hadi badela tribunal bat fina
Hire kondenatzeko berria egina
Hortan salbatzen bada Kaiser-ren arima
Gure erlisionea ez da arras fina

4

Pertsu hauen emalea berenez senperrara
Hirurogoita hamarrek soldadu zaharra
Berriz zerbitzatzeko joan zaio indarra
Galdearen beha dago hil harrietara

14-15 Norik gezur handiago

Teresa Ibarra

Paxkal Mendiboure

Itsasoan hasi dire arbolak landatzen
Itsua ikusi du etxe bat erretzen
Zango motza lasterka uraren garraiatzen
Mutua deidarka jendearen abisatzen
Gogor bat han zegoen guztien aditzen

Itsasuko Manex Olhagaray-n kaieretik

1

Mila orga belar ehun karga lasto
Baserri batetako ez litezke gaixto
Sakelan ekarri (di)jüt ezarrita atzo
Orain unti batean ezarri (di)jüt preso

2

Hara non sartu dira hamabi nobio
Sei konfitero eta sei botikario
Bostna kintalekoak zortzi hamario
Gizon batek apurxo bizkarrean igo

3

Hara non ikusi dut zenbait oto jaki
Xantxangorri batenak sei libera tripaki
Kanibetak ideki ta etzerak ebaki
Horien manera zer den Xenpelarrek badaki

4

Gizon bat ikusi dut hiru ehun urtelan
Mariñel bat ibilki untziko soketan
Haren aitona berriz itsasoan lurketan
Zapet orde xalupak zituen oinetan

5

Itsasoan ari dira arbolak landatzen
Zango motzak badaki lasterka kurritzen
Itsua ikusi du etxea erretzen
Mutuadeidarka jendea biltzen

6

Krixtoeren kofiadua eskalapoiekin
Preso ereman dute lotuta sokakin
Apostu egin omen du alkate jaunakin
Nor gutxiago mozkortu gehiago edanakin
Zango motzak egin du apostu lasterka

Beso motzak berriz ondolik harrika
Mutua aritzeko ondora etorrira
Itsua seinalatu begira jarrita

16 Euskal Herrian jalo

Teresa Ibarra-ren ahotik

1

Euskal Herrian jalo* euskara gaitzetsi
Euskaldunen izenik ez dute merezi
Hizkuntzak jakin arren zazpi edo zortzi
Euskaldunak behar du euskara lehenbizi

2

Euskalduna naizela gogoratuzean
Atsegina sortzen zait bihotz bihotzean
Euskaldun bat ikusten dudak bakoitzean
Maitasuna sortzen da gu bion artean

* jalo = sortu

17-18 - Nafarroako alaba

P. Mendiboure-ek ahotik eta eskutik

+Manex Olhagaray

1

Dozen erdi bat pertsu dudarikan gabe
Dama gazte horientzat komeni badire
Irunen zerbitzari zinauden herabe
Bainan nafarroako alaba zirade

2

Irundik Donostirat bueltan Donibana
Barber eta mediku adituena gana
Arribatu zeneko zer daukazu dama
Operazio on bat egidazu jauna

3

Hona mediku jaunak erran dion hitza
Erremedio bilan zertakotz zabilta
Barregoen gaitzeko etsaia dabilta
Laster sendaturen da zuk daukazun gaitza

4

Egun batez Irundik dama hori galdu zen
Umea egin omen du San Juan de Luzen
Hazia erain eta fruitua sortu zen
Haren kontserbatzera entseia gaitzean

5

Irungo apez horrek semetxo bat badu
Osaba erraten dio berak hala nahi du
Ederki errana da konprenitzen badu
Aitak meza eman eta semea lagun du

19-20 Eper zango gorria

F. Fagoaga "Apeztei"

1

Oi eper zango gorria, airean joaile propia,
Ez duzuia bada pena, neure hola ikustea,
Otoi, otoi, har nezazu, utzirik bertzeak.

2

Nora nahi joan nadin neure bihotza zurekin
Plazerrikan ez dut hartzen neure gazte lagunekin
Nun ez zaitudan zu ikusten zure begi ederrekin

+ G Bergara "Xistu"

2

Nora nahi joan nadin ene bihotza zurekin
Nehon ez dut plazerrik hartzen ene gazte lagunekin
Nun ez zaitudan ikusten zure begi ederrekin

3

Maite nauzula diozu nik ere maite zaitut zu
Diozun bezain maite banauzu elizaz behera nazazu
Elizaz behera nazazu eta gero zurea nukezu

4

Urre erraztun bat baduk nik bere ederrez harturik
Hura ikusi arterialno zure erian sarturik
Ene bihotzak ez du izanen ordu artio deskantsurik

+ Benane Zamora "Sukar malina"

5

Eri nuzu bihotzez, erratan dautzut bi hitzez
Sukar malinak harturik nago zu ez izaltea beldurrez
Otoi otoi har nazazu, hil ez nadien xangrinez

6

Urre erraztuna baduzu, bertze norbaiti emozu
Neure erian sarturik segur, ikusiren ez duzu
Bertze zonbeit ahal duzunez entsea, hobe duzu

7

Gaitz ororen kontrako erremedioak badire
Sukar malina baldin baduzu, zerbitza zaite barberez
Eta ez ene ganat jin mirikuen beharrez

8

Zazpi urte ja baditu uda honetan kunplitu
Amodio perfet batez zintudala maitatu
Baina orain, ni beldur nauzu zu zaren kanbiatu

21 Neskak gaitzetan

Mattin Troku Ahetzekoa

Manex Olhagaray-ren ahotik

Mattin ere ibiltzen da herrietako bestetan
Arras galduta dago oraiko gazteetan
Mutlak ile luzetan neskak gaitzetan
Zoin diren jakiteko miatuko (di)ttugu iste(re)tan

22 Bi emazteki

1

Bi emazteki ditut egun aipatzen
Bakotxa eman bedi ongi entzuten eta ikasten
Gauza jakinak ez du litor mendratzen ez eta gaitzen
Gero hauta bakotxak zoin nahi duen

2

Kattalinek burua hain du garbia
Du sorbalda hor baitu zuri-zuria, dena zahia
Barrika bezain lodi dauka gerria, zoin den propia
Iduri du zaku bat gaizki josia

3

Kattalinen ondolik hor da Maria
Goizean goiz lanari finki hasia, oi zer erlia
Sukaldeko lanetan pare gabea, urre garbia
Laudatzen ari zaio herri guzia

23 Primaderako florian

1

Primaderako florian hogoita bigarren urtean
Neskak gazte iflorant bat naiz pena xangrinen erdian
Neure bizia gaitzera noa adinik ederrenean

2

Badu jada biga urte badudala norbait maite
Burasoeri deklaratu orain duela bi urte
Heiek ere axola gabe saldu nahi izan naute

3

Aitak erran zautan neri, zoin bihotz erdiragarri
Nere aberastasunarentzat ez dut aski maite hori
Ezkontarazi nahi ninduten markis baten semeari

4

Geroztik nago penetan etzana ohe batetan
Medikuak ekartzen dautzet baina oro afferretan
Ustez ni sendaturen naute barber eder horietan

5

Mixelbatzeko barbera da neure maite bakarra
Otoiztu ditut aita eta amak utz nazaten ikustera
Atsegin hori ez egin nahiz utzi naute hiltzera

24 Jeiki jeiki maitea

F. Fagoaga "Apeztei"

1

Jeiki jeiki neure maitea, ez ote zira loz ase
Zure ondoan dabiltan gaixoak ez direla logale
Idekazu ia bortaioa eta adixkideak girade

2

Ez ez dautzut idekiren gau ilunean bortarik
Barnean denak ez baitaki kanpokoaren berririk
Zato bihar egunaz eta kausituen naiz bakarrik

3

Bihar egunaz etortzeko urrun bizi naiz maitea
Zakurrak ere gaixtoak dire eta nork eginen du bakea
Nik eginen dut bakea eta beraz etorri maitea

4

Neure maitea ez dun lotu erran nindauzun bezala
Hitz egin dezagun gostura pasa zaitea salara

5

Salara joan eta ginenean jarri biak begira elgarri
Ikusi berak zu ez zaituen Ama birjinak igorri
Behin betikotz nahi zaitut hartu penaren kontsolagarri

25 Etxean andrea nagusi

F. Fagoaga "Apeztei"

1

Kantari nahi naiz hasi, nahi duenak ikasi
Lehen banituen lur eta etxeak orain gan zaizkit thesi
Etxean andrea nagusi, saltzea luke merezi
Inork nahi badu erosi

2

Andrea zabil tratuan, emanean eta hartuan
Bere partetik salduen luzke senarra hiru kuartutan
Ez atera barkuan entregatzeko portuan
Ez da prezio hartuan

3

Gaztetan morroin egondu, ezkondua naiz berandu
Suete onik mundu honetan neuretzat ez da izandu
Zahartu eta ezkondu gero andreak aillendu
Gaztea behar omen du

26 Oletan bordela

Tapia

Ziburutik zaizkigu bi neska faltatu
Sardinez kargatuak Oletan pasatu
Batto zen Maria Motxa bestea Mottela
Horiek egiten dute Oletan bordela
Gero esaten dute dontzeilak direla

27 Neska zahar

Txirrita

1

Neska zahar baten tentatzen lehengoan naiz hasi
Alpamena ere egin berari lehenbizi
Hau mutil zahar zikina esanda ihesi
Estimazio txarra ez deguk ikusi

2

Beste bat topatu det hizketako eran
Hari ere esan diot ezkonduko geran
Haur gazte floreakoa badaukala aurrean
Azkenean zer esan dit diru asko dedan

3

Ama preparatu zait haserrez bete
Lehenbiziko oihua zenbat ote dek dotea
Hoinbeste gostarikako alaba maitea
Lastima lukek orai hiri ematea

4

Bi ahuntz eta asto bat badauzkat erdira
Zazpi ardi zahar ere mendian hor dira
Neska zahar deabru horiek zer dira
Konformatu ez da eta nerretzat berdin da

5

Mutil malizioso deabru aldetia
Ez hauzkit zabalduko gehiago atea
Ez haut izatu egundaino bihotzez maitea
Nereganik libro halz hor konpondu gaitean

6

Nere jakinduria ari da ezitzen
Errez dela diote zenbaitek ezkontzen
Promesa on bat egin eta ez bazara ontzen
Lanak izango dira zurekin konpontzen

28 Betroin zaharra

Xenpelar

*Hitzak M. Arribilaga-ren kantu bildumatik
G. Bergara "Txistu"-ren ahotik*

1

Mila zortzi ehun eta hiru hogeita bian
Predikatzer a noa euskal herrian
Betroin bat hartu nuen Ermanin ferian
Galantzia egingo zuela agian
Tristura begian beti aulerian
Ez bazen premian ene familian
Xenpelarrek badaki errenterian

2

Ortzegun joan denean hamabost Ermanin
Betroiaren tratua ginuen egin
Inazio saltzaile erostuna fermin
Hemeretzi eskudo ginion eragin
Sabelean du min inork ase ezin
Artoari musin ez du nai edozein
Atzetik behar ditu zazpi medezin

3

Oraink gaztea da hogei ta sei urte
Ernari omen ditu bost hilabete
Nik ez diot agertu ala esan dute
Gezurra baldin bada engaiatu nau
Haragia aparte hezurretan dorpe
Zainak dauzka fuerte zeinek nahi du merke
Zikiro baten trukari eman nezake

4

Informe txarrak dira horrentzat hauzotik
Espalda atera urrun besotik
Eztul eta antisia ukuilo zulotik
Desterraturen nuke hori nere lotutik
Amarra lepotik grillera zepotik
Makilaz ondolik jotzen det gogotik
Axolarikan ez dut nik horren gatik

5

Begi bat itsua du adar biak motzak
Kriselua dirudi horren kokotsak
Ikaratzen gaitu eztul horren bozak
Burlaka hari zaizkio elizatik huntzak
Sano dauzka hortzak haginak zortzak
Tristura bihotzak dantzan dabil hotzak
Ez dio onik egin leku arrotzak

6

Kara iguala dauka aurrean eta atzean
Basurdea dirudi zutik jartzean
Kontsuelo bat badet ene bihotzean
Bizirik espakutzen bada hil beltzean
Hori umatzean esnea etxean
Gasta abatziñ gazura arratsean
Belarrak gizen duko dik maiatzean

7

Borroka dabilala joan zaizkio adarrak
Ezin sujetaturik bere indarrak
Lurrera botatzen du kailuaren kargak
Zer talendua daukan nere betroi zaharrak
Jendearen parrak ez dirare txarrak
Janari helbarrak juntura igarrak
Buruntzia dirudi haren bizkarrak

8

Ene betroinak ez du gaurko logalea
Egun oroz nahi ezlik ogalea
Abere ezin jasan lepoko kuallia
Burua makurtu ta zerbaiten galdea
Haren saldalia ez da debaldea
Gauza onen zalea bixkotxa jalea
Malezia asko daukan arrantzalea

9

Burua jarri zaido lurrera begira
Beharriak zintzili ai ser segida
Albaintero guztiak ikaratzen dira
Zeinek sendatuko du holako erra
Bakatzen asi da hirutarik bida
Hau ene perdida nork nahi du erdira
Bainan ez det eman nai euskal herrira

10

Urteak galandu ta haginak azaldu
Daukanak hobe zuen hartu ez balu
Etxetikan kanpora ez dirot bidaldu
Joka hazten naiz bainen laster urrikaldu
Haragia galdu larra ona du
Hezurrak horra du frantsesak nahi balu
Labain gizonetarat hobe det saldu

11

Huna pertsu berriak Xenpelarrek para
Askok jakin dezaten nere euskara
Ustez hala badu dut betriaren kara
Ukuiuan eztulka pasatzen du gaba
Oi gure izarra sano du higarra
Guziak tripara holakoa zara
Desterratu nazazu gezurrik bada

29 Behia erosi dut

Minaberry

1

Mila urte beterik bederatzit ehun
Arten berrogoita sei, kantuz pasa dezagun
Merkatuan izan naiz Bankatik ez urrun
Neuretzat fortunarik ez baitago nihun
Kantuz esplikatzan dut suleta zer dugun

2

Behi bat erosi dut urrungo herriatik
Urrikitan sartua bainago geroztik
Urkia dekalde baitira ondolik
Zer egin bertzerikan hola da engolitik
Galtzetan ere berdin sal niro gogotik

3

Hogoi urte baditu ez zen atzo sortu
Zaharren erretretan beharko dut sartu
Ahalak galdu ditu bizioak hartu
Erostean ez nintzen orori oharitu
Tratulantak begia ernea behar du

4

Enganatu nautela ez dut ukatuko
Ez naiz aski ernea kabala tratuko
Paregabera zela etxe probubuko
Saltzaleak erranik ez zaik dolutuko
Lerden ezagutu dut frogatu orduko

5

Haragia guti du hezurrak azkarrak
Ezpeta bat iduri du horren bizkarrak
Menbronik ederrenak ditu bi adarrak
Heien puntan dabilza ez gau zaharrak
Ofizio hortako baditu indarrak

6

Deitzen hasi orduko zer egin badaki
Esne onaren orde ostiko ausarki
Firurikan dabilza kotsu eta alki
Defendatzeko molde guziak bada(ki)zki
Izterretako zainak ez ditu hain gaizki

7

Enplegu bat horrentzat behar dut hauteman
Galtzetan erostunik ez diot atxeman
Arras kitonik ere ez dut nahi eman
Uztartzen dudanean jartzen bada teman
Papur batek ez liru tiraka eraman

8

Gaztedanikan ez zuen borroka ikasi
Bertzean desafiatzen ez zaio itsusi
Bertzeak zaizk(i)onean beri buruz hasi
Prisa hortan ez nuen sekulan ikusi
Arrosien gainetik bazoan ihesi

9

Barruko zokotikan gau egun eztulka
Errezelatua da ez ditaika uka
Jendeak ari zaizkit gau egun oihuka
Ez zakala behi hori barrukotik truka
Egin niro gogotik hartzale banauka

10

Horra nik esplikatu berriak gogotik
Konprenitu n(a)juzue guziek engoitik
Jale segurra baita, ez beldur horgatik
Erosdun bat agian jinen da nonbaitik
Hoinbertze kalitate duenaz geroztik

30 Ardoaren bentajak

G. Bergara "Txistu"

1

Ardoaren bentajak noa esatera
Milagro haundiagorik munduan ote da
Hasi baino lehenago inor edatera
Zenbat komeni zaion kontuak atera

2

Ez da filosoforik ez teologorik
Arnoari neurria hartuko dionik
Gizon haundiak ere ikusi ditut nik
Beren mozkorra ezin disimulaturik

3

Bertso para ninduten kupela batean
Geroztik hemen nago sei hilabete
Lagunduren zintuzket amodio tendrean
Begira izan ez banintz zuretzat kaltean

4

Gizonak galdetzen du , non da arno
Ardoak arraposta, hemen nago jauna
Zu nahi zintuzket hartu enetzat laguna
Beldur gabe pasatzeko gaua eta eguna

5

Alde bat andarretan bertzera erori
Nolazbait exera da gizon eder hori
Gero maledizloka andre gaixoari
Txapela kendutzeko taberneroari

6

Ardoak ez zuela zinon indarrak
Nik ez dut ikusi nahi horrela senarrik
Txapela baten gatik ez egin negarrik
Bunugabeak ez du txapela beharrik

7

Senarra ezin alkatuz andrea ari da
Parrez itotzen dago jendea begira
Dolorez alxatu eta berriz erori da
Zikintzeko beldurrez lohiaren erdira

8

Gizona etzan zaite bakean ohera
Egunaz zabalzera konponduko gera
Txapela prenda utzirik etorri atzera
Kreditu ederren bat daukazu zahartzera

31 Kailla kantuz

Taldean

G. Bergara "Txistu" Benena Zamora

1

Kailla kantuz ogipetik uztail agorrietan
Maitearenganik etxerakoan entzun izan dut bortzetan
Amodioak bainerabilia haren borta leihoetan
Amodio amodio nahi duenak ardio
Nik batentzat hartu dut eta sekulan ez dut utziko
bihotzetikan ezin utzia hobian sartu artino

3

Kukuak umeak xilo tipian haritz adarren gainean
Ama ni ere ezkondu nahi adinak ditudanean
Ene lagunak eginak dire joan den aspaldi haundian

4

Primaderean zoin den eder brioletaren lorea
Aspaldian nik ez dut ikusi ene maitearen begia
Baldin ba gaixok ez du ahanzti eman zerautan fedea

5

Oroitzen nazu oroitzen ez zaitadazut ahanzten
Oi Madalenak bezainbat pena dut mundu honetan sofrizten
Jaten dudana ogia ere da nigarrez bustitzen

6

Gaua ilun bidea luze ez dea pena handia
Bai ikustera jiten nitzazu oi izar xarmagarria
Otoi atea idekaguzu zuk tendreziaz betea

7

Gaua luze izanagatik argi eskasik ez dugu
Izar eder bozgarri hura leihoan omen dagozu
Gu ebexa sartu artino harek argituren gaitu 8
Amurraina filimifioa, filimifio bainan agudo,
Ur zolatikan gaineraino ateratzen da oraino.
Neskakak ezetz erranagatik mutilak amora dio.

9

Bazterretik bazterreara oi itsasoaren zabala
Ez dakienak erran lezake ni alegera naizela
Hortzetan dizut irria eta bi begietan nigarra

Bilduma hau Oxtikenekoak elkartearena da

Argazkiak : Auxtin Zamora
Soinu hartzaileak : Rafael Parejo
De Johanto , Panpi Zamora
Antolatzaile : Mixel Mendiboure
audio ekoizpena eta liburuxka :
P. Zamora

Azaleko hitza : Patri Urkizu
Eskerrak Senpereko herriko etxeari
Euskal kultur erakundeari ,

- | | |
|-------------------------------------------------|---------------------------------------------------------|
| 01-Auger Ibarra - Ur xuri gainean | 01- Auger Ibarra – Euskararen laudorio |
| 02-F. Fagoaga "Apeztei"-Lehengo denboretan | 02- P. Borda - Alakes eta Txunpaire |
| 03-Delpech Sara 2001-Aspaldiko denboretan | 03- F. Billon "Oilandei"-Xori kalolatik ihes joan dena |
| 04-G. Bergara "Txistu"- Hilargi dela | 04- P.Mendiboure - Kilo egilearenak |
| 05-G. Bergara "Txistu"- Borta hortan | 05-Taldean - Borta hortan norbait bada |
| 06-JN Bessonart JP Lascano-Ihizia eta ihiztaria | 06-G. Bergara "Txistu" - Borta hortan |
| 07-JN Bessonart JP Lascano-Ihizia eta ihiztaria | 07- J.B. Minaberry - Satorra |
| 08-F Billon "Oilandei"-Oraiko neska gazteak | 08-Manex Olhagaray - Dantza debekatzaileak |
| 09-G. Fagoaga-San estebe egunean | 09- Olaetxe ahezterra - Kazeta huntan |
| 10-L. Elhorga-14-ko gerla | 10 - Taldean - Kazeta huntan |
| 11-P. Mendiboure-Arotz abil bat Gatua | 11- Tapia – Bederatzi urte gerla |
| 12-Tapia - Ikusi nuenean | 12- F. Fagoaga "Apeztei" - Francoren txaparrotea |
| 13-G. Bergara "Txistu" - Bautista haundia | 13- P. Borda – Guillaume imperadore |
| 14-F. Fagoaga "Apeztei" - Hunen bizimodua | 14- T. Ibarra – Zoinek gezur handiago |
| 15-G. Bergara "Txistu" - Egurra nuen | 15- P. Mendiboure – Zoinek gezur handiago |
| 16-G. Bergara "Txistu" - Neure ofizioa | 16- T. Ibarra – EH-an jai |
| 17-M. Urbistondo - Neure ofizioa | 17- P. Mendiboure-Auger Ibarra- Nafarroako alaba |
| 18- M. Urbistondo - Untzi xuri pollit bat | 18- Manex Olhagaray – Nafarroako alaba |
| 19-J.B. Lamarens - Untzi xuri pollit bat | 19- F. Fagoaga "Apeztei" - Eper zango gorria |
| 20-Taldean - Soldado batek Tunisiatik 1883 | 20- Taldean – Eper zango gorria- B. Zamora Sukar malina |
| 21-G. Bergara "Txistu" - Milaka goraintzi | 21- Manex Olhagaray- Neskak galtzetan |
| 22-F. Fagoaga "Apeztei" - Pepa | 22- Bi emazteki |
| 23-F. Fagoaga "Apeztei" - Pepa eta Koakin | 23- Taldean – Primaderako florian |
| 24-F. Fagoaga "Apeztei" - Eri naiz bihotzetik | 24- F. Fagoaga "Apeztei"- Jeiki jeiki maitea |
| 25-F. Fagoaga "Apeztei" - Egun oroz | 25- F. Fagoaga "Apeztei" - Etxean andrea nagusi |
| 26-F Billon "Oilandei" - Ijitoak | 26- Tapia - Oletan bordela |
| 27-F Billon "Oilandei" - Gazte hiltzera doana | 27- Neska zahar |
| 28-F Billon "Oilandei" - 36-ko gerla | 28- G. Bergara "Txistu" - Betroin zaharra |
| 29-Taldean - Amodioa gazteen zoragarria | 29- Minaberry – Behia erosi |
| 30-Taldean - Xarmagarria nik zure berririk | 30 - G. Bergara "Txistu"-Ardoaren bentajak |
| 31-G. Fagoaga "Apeztei" - Lili bat maite nuen | 31- Taldean – B. Zamora – Kailla kantuz |
| 32-Teresa Ibarra - Solas Apezak eta fraileak | |
| 33-T Ibarra - Apezak eta fraileak | |
| 34-G. Bergara "Txistu"- Et libera nos malo | |
| 35-Taldean - Apez edo misio | |
| 36-Taldean-Iruñeako ferietan nahas | |